

Galdera, Zentro Onkologikoa eraikitzeke eta haren ekipamendurako aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Zentro Onkologikoa eraikitzeke eta haren ekipamendurako aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

2006ko urtarrilaren 11n egin nizkion galderei Osasun kontseilariak eman zien erantzuna jaso dut, eta horietako bakarrari ere ez dionez erantzun, galdera horiek errepikatu beharrean nago, parlamentaria naizen aldetik dudan eskubidearen araberako informazioa lortu ahal izateko.

Nafarroako Gobernuak, 2001eko ekainaren 11n, plan onkologikoa onetsi zuen.

Planaren funtsezko osagarria zentro onkologikoa eraikitzea zen. Heldu beharreko gai garrantzitsuena eta lehentasunezkoa zen erradioterapiaren arloa. Planak jarduteko kronograma eta zenbatespen ekonomiko bat aurreikusten zituen.

Xede horretarako 2003., 2004. eta 2005. urteetan aurrekontuetan jasotakoaren eta betetakoaren jarraipena egiten bada, honako emaitza lortuko dugu:

Kontusailaren izena	2003. urtea		2004. urtea		2005. urtea	
	Aurrekontua	Betetakoa	Aurrekontua	Betetakoa	Aurrekontua	Betetakoa
Ikerketa eta tratamendu onkologikoen unitatearen jarduerak	2.247.000 euro	1.137.000 euro (% 50)				
Plan onkologikoko obrak			2.542.000 euro	139.000 euro (% 25,6)		
Onkologiarako ekipamendua			1.026.000 euro	44.000 euro (% 6,76)		
Berritze teknologikoa			1.325.000 euro	0 euro (% 0)		
Plan onkologikoko obrak					2.864.200 euro	173.727 euro (% 9,41)

Hiru urteetan aurrekontuetan jasotakoa guztiak, 10.004.200 eurotik, 1.493.727 euro baizik ez dira bete; hau da, % 1,49.

Kontuan hartu behar da 2001eko plan onkologikoaren beraren arabera, Nafarroako Ospitaleko azeleragailu lineala zaharkiturik zegoela, eta O-NOZeko zuzendari kudeatzailearen 1796/2001 ebazpenaren bidez erradioterapiarako ekipamendua erosi zela, hau da, hiru azeleragailu lineal; kontuan hartu behar da, halaber, 2006an gaudela, eta honezkero Nafarroako Ospitaleko azeleragailu lineala behin eta berriz matxuratu dela. Hori guztia dela eta, hona galderak:

2.- Non daude zehazki 2001ean Varian Medical Systems Ibérica SLri erositako hiru azeleragailu linealak?

2.- Adjudikazio horrek, guztira, 4.207.084 euroko kostua izan zuen. Zenbat eta zein urtetan ordaindu da?

3.- Noizko aurreikusten zen plan onkologikoan haiek instalatzea? Plan onkologikoaren kronograma nahi dugu, gobernuak 2001ean onetsitakoa.

4.- Egin al da plan horren aldaketarik? Baiezkoan, egindako aldaketak eta haiek onetsi zireneko gobernuaren saioa ezagutu nahi ditugu.

5.- Nafarroako Parlamentuak aurrekontuetarako onetsitakoaren eta Nafarroako Gobernuak 2003., 2004. eta 2005. urteetan betetakoaren artean dagoen aldeari buruz, hona galdera:

– Zein izan dira aurrekontuaren betetze txiki horren arrazoiak?

– Zertarako erabili dira, azkenean, aurrekontuetan jasotako diru kopuru horiek, zure erantzunaren arabera Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren beste beharrian batzuetarako bideratu zirenak? Aurrekontuetan egindako aldaketak ezagutu nahi ditugu.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda